

INGURUNE HURBILEAN ERAGITEKO BIDEAK**ONDORIO NAGUSIAK**

Dinamizatzaileak: Aintzane Zabala (Emun), Maite Barreña (Emakumeen Txokoa)

[Bideoa](#): Iñaki Martínez de Luna (EHUko irakaslea)

Taldea 4 multzotan banatu dugu, 4 ingurune hurbiletan oinarrituta. Ingurune hurbil bakoitzeko egoera bat jarri dugu mahai gainean eta galdera orokorrari erantzungo dioten ideiak zerrendatu dituzte taldekideek: *pertsona batek euskararen erabilerarako jautzia eman dezan, zein portaera izan beharko lukete bere ingurune hurbileko pertsonak?*

FAMILIA

Etxe batean gurasoak eta semea bizi dira. Hirurak dira euskaldunak. Gurasoek gaztelania erabiltzeko ohitura daukate. Semeari euskaraz hitz egiten diote. Semeak txikiagoa zenean euskara erabiltzen zuen, baina, azkenaldian bera ere gaztelania erabiltzen hasi da.

Semearen hizkuntza portaera aldatzeko, zein portaera izan beharko lukete bere gurasoek?

Idea hauek sortu dira:

Semeari euskararen balioen garrantzia azaldu
Etxean barnetegi bat antolatu
Etxeke giroa euskaldundu: telebista, musika, irratia...
Gurasoak eredu diren heinean, euren portaera aldatu beharko lukete eta euskaraz egin
Hiruren artean erabakia hartzea, inflexio puntua! (euskaraz aritzekoa)
Kanpoan laguntza bilatu (eskolan...)
Gaztelaniaren erabilera zigortu
Guraso batek semearen konplizitatea bilatu eta ohitura lantzeko estrategia landu.
Semea familia euskalduntzeko prozesuaren "protagonista" bilakatu
Eremu sozio-lingustiko-kultural euskaldunetara hurbildu
Semeari gaztelaniaz egin (kontrako efektua lortzeko)

Telebistak garrantzia handia du. Umeentzako eskaintza gehiago izan behar da eta gurasoek horren beharra aldarrikatu behar dute.
Gurasoak ere eremu euskaldunetan murgiltzea
Euskararen erabilera saritzea
Semeari azaldu euskara ez dela derrigorrezko kontu bat, plazera eta aukera baizik.
Familia eredu euskaldunetara hurbildu, "parketarrek"...
Euskaraz aritzeko guneak finkatu eta konpromisoa hartu horrela mantentzeko
Konturatzea seme-alabaren aldaketaren arrazoia bikotearengan dagoela.

● **ESKOLA**

Eskola batean guraso bilerak egiten dira. Euskarazko bilerak 18:00etan izaten dira eta gaztelaniazkoak 19:00etan. Euskarazko bilera batean, pertsona batek interbentzioak gaztelaniaz egiteko ohitura dauka. Horren eraginez, bilerako beste persona batzuek ere gaztelaniaz egiten dute. Pertsona horrek interbentzioak euskaraz egin ditzan, zein portaera izan beharko lukete bere inguruko pertsonak?

Ideiak hauek dira:

Hizkuntza irizpideak zein diren gogoratu bilera hasi aurretik
Bilera euskaraz izango dela argi utzi
Autoritatea duen pertsonak hizkuntza erabilera zein den adierazi beharko du
Arduradunak gaztelaniaz egiten duenarekin hitz egin eta gainerako gurasoekin ere bai
Beste gurasoen interbentzioak euskaraz izatea
Gaztelaniaz egin ondoren, irakasleak eten bat egin eta modu asertiboan arauak adostea
Gaztelaniaz jarraituko balu, irakasleak beste erdara batean erantzutea
Arazoa euskaraz adierazteko gaitasun falta bada, besteek ez dezatela gaztelaniara jo.
Euskaraz egiteko konpromisoa denen artean adostea

● **LANA**

Udaletxe batean bulego berri bat ireki dute. Bertako langileak ere berriak dira. 4 langilek osatzen dute lantaldea eta horietako bat zuzendaria da. Denak euskaldunak dira, baina, batek gaztelaniaz egiteko ohitura dauka eta bere ondorioz, euren arteko lan harremana gehienbat gaztelaniaz da (erabilera formala zein informala). Pertsona horrek euskara erabiltzeko, zein portaera izan beharko lukete bere inguruko lankideek?

Ideiak hauek dira:

Udalean Euskara Plana abian jartzea eskatzea
Euskara teknikaria balego, akuilu lana egin beharko luke
Hizkuntza ohiturak adostu modu esplizituan
Zuzendariak funtzionamendua euskaraz izatea bermatu behar du
Zuzendariak laneko funtzioak euskaraz egitea bermatzea, ahoz zein idatziz
Maila formalean euskara erabiltzea arautzea
Zuzendariaren portaera klabea da
Gaztelaniaz egiten duenari adierazi bere jokaerak zer sentiarazten digun
Besteek euskarari eutsi
Gaia mahai gainean jarri

● **LAGUNARTEA**

Lagunarte euskaldun batean kide batek gaztelaniaz egiteko ohitura dauka. Gaur Gipuzkoako Bertso Txapelketara joan dira eta kide horrek etengabe gaztelaniaz dihardu. Pertsona honek euskara erabiltzeko jauzia eman dezan, zein portaera izan beharko lukete bere lagunek?

Beste guztiek euskaraz egitea
Saioari/gaiari buruz euskaraz aritzea berarekin, astiro txipa aldatu dezan (oharkabeen). Bertsolaritzari buruz jardun.
Euskaraz harreman/esperientzia positiboak eskaini, hizkuntzarekiko objektibotasuna areagotzeko eta gerora motibazioa: harreman berriak euskaldunekin, bertso afariak...
Jaramonik ez egin, ohartu dadin
Sentimendua: lotsa sentiarazten digula jakinaraztea.
Euskaraz erantzun, gureari eutsi

● ONDORIO NAGUSIAK

1. Ingurune hurbilean eragiteko, beharrezkoa da gutxi batzuen indar motibatzailea.
2. Ingurune hurbilean eragiteko, pertsonak egoeraz jabetu edo jabe arazi behar dira.
3. Ingurune hurbilean eragiteko, pertsonak elkarrekin adostu behar dute aurrerantzean aplikatu beharreko "araua".
4. Norberak euskaraz egitea da gakoa, eredu izanik.
5. Ingurune hurbilean eragiteko, funtzio formaletan araua zorrotz aplikatu behar da. Funtzio informaletan, berriz, alderdi emozionala ere kontuan hartu behar da.

Babesleak:



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua

donostiakultura.com

STM
San Telmo Museoa

Babesleak:



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Euskara Zerbitzua

donostia**kultura**.com

STM
San Telmo Museoa